



FUNTSEZKO JARDUERAK

Badaude kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen funtsezko jarduerak, beti enpresa barruan egin beharrekoak. Gure enpresaren muina osatzen dutenak babestu egin behar ditugu, daukagun aktiborik garrantzitsuena direlako. Funtsezko jarduera horien adibide garbia litzateke Coca Colaren prestakuntza edo formularen erabilera.

Beste enpresa batzuen esku utz daitezke jarduera batzuk, enpresak berak jarduera horiek egiteak ez diolako balio erantsirik ematen. Adibidez: catering zerbitzua, garbiketa, publizitatea, etab.

Gure kasuan, ikusentzunezko proiektu batean, ezinbestekoa da proiektua hiru sektore nagusietan banatzea. Sektore bakoitzean lanpostu eta langile desberdinak egongo dira, eta honela banatzen dira:

- **Preprodukzioa**

Sektore honetan proiektu osoaren plangintza jorratuko da. Horretarako, hurrengo jarduerak bete behar dira:

- Aurrekontuaren planifikazioa
- Gidoia
 - Teknikoa zein literarioa
- Filmaketa planak eta ordenak
- Lokalizazioen aukeraketa
- Materialaren zerrenda eta eskaera
- Talde tekniko zein artistikoaren zehaztapena

- **Produkzioa**

Sekzio honetan, produkzioan jardungo diren lankideak aurkituko ditugu. Atal honetan, aurreprodukzioa eta planifikazioa egin ondoren, laburmetraien grabaketetan hasiko gara. Prozesu hau oso garrantzitsua izango da, eta baliteke denbora gehien inbertitu behar dugun sektorea izatea.

- **Postprodukzioa**

Sektore honekin hasiko gara produkzioarekin bukatu bezain laster. Bertan, grabatutakoaren muntaia egingo da emaitza finala lortu arte. Horretarako, bideoen kolorea, audioen soinua, etab. aldatuko ditugu nahi dugun emaitza lortu arte.

- **Marketing-a**

Atal honetan, marketing-a prestatzen hasiko gara. Honi esker, bezeroak erakarri ahal izango ditugu, gure ideiak bistaratu eta jendea gure laburmetraiak ikustera bultzatuz.